

2011ko azaroa



STEE-EILAS

Gauzatuko ote da?

AURKIBIDEA:

EDITORIALA.....	3
LA CASA DEL TERROR.....	4
AKORDIOA.....	5
LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.....	6-7
LAN ISTRIPUAK.....	8
HAUR ETXEAK.....	9
GIZARTE MUGIMENDUAK.....	10
KALITATEKO HEZKUNTZA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE.....	11
HAN HEMENKA IRAKURRITAKOAK....	12

.....Eta bagoaz

Udazkena aurrera doa eta badirudi gu ere hostoen kolore aldaketarekin batera baretu egin garela. Baina ez, ez da horrela, hemen jarraitzen dugu eta gauzak poliki - poliki aldatzen ari gara.

Atzera eginez, asko ez, hilabete bat edo, beste egoera batean geunden. Haserreago, lanpetuago, itxaropen handirik gabe baina gauzak egiteko prest. Haur-eskoletako egoera, lan baldintzak eta iritziak jasotzen saiatu ginen. Horretarako, asanbladak, afiliatuekin bilerak etab. egin genituen herrialde bakoitzean. Jasotako iritzi, proposamen eta abarrak ezberdinak izan ziren, baina argi zegoen herrialde guztietan zerbait egin, egin behar zela: Araban paroak baina zerbait gehiago egin behar zela zioten, Bizkaian paroak jarraian eta Gipuzkoan lehenengo egoera plazaratu egin behar zela..

Greba, lanuzteak... konbokatu ziren, eta **ZER GERTATUKO ETA PATZUERGOAK BILERA BATERA DEITU ZIGUN!** Mobilizazioak bertan behera uzteko eskatu zigun baina, horretarako aurreakordio bat , non gure lan baldintzak pixkat hobetzen diren sinatu genuen..

Ez dirudi akordioa denon gustukoa ezin denik, baina, badugu uste sakona gehiengoaren nahia bete dugula sinatzean..

Akordioa, hainbeste borroka egin ondoren , ez da dantzan hasteko modukoa, baina **KONTXO!** sinatu diren pare bat puntu onuragarriak dira. Eta bazen garaia modu ez legal eta ez etiko batean kendu nahi izan diguten dirua gurea dela aitortzeko. Beste puntu bat eta lehenengoa bezain garrantzitsua edo gehiago gure lan baldintzak hobetzeko sortu berri den Batzorde Teknikoa osatzearena izan da. Egia esateko bigarren puntu honetan akordio sinatu bezain pronto eman dira lan baldintzen hobekuntzak, eta jakin badakigu, hobekuntza gehiago ere emango direla. Erabaki hauek lehenago egin zitezkeen jakina, eta orain arte ez badira egin dirua aurreztu nahi zutelako izan da. Presioari esker lortu da lortu duguna eta bada zerbait.



LA CASA DEL TERROR

AURTEN. HARTU ARNASA... BADA7OR....



haur-etxea

DIRECTED BY:
Gema Zabaleta,
Isabel Celaa



RECORT-Aventura

AKORDIOA

LAN AKORDIA

Partzuergoak eta Sindikatuak sinatutako akordioaren berri eman baino lehen, sinatutakoa, bizi genuen konfliktotik ateratzeko pausoa izan dela aipatu beharra dago.

Hasteko, egoera osoaren laburpen txiki bat egingo dugu:

2009an egun indarrean dagoen lan hitzarmena iraungitu zen, hori dela eta, berri bat negoziatzen hasteko pasadan ikasturtearen hasieran buru belarri jarri ginen. Gure plataforma Partzuergoari helarazi ondoren, haiek argi eta garbi utzi ziguten beraien asmo bakarra, murrizketak nola aplikatuko ziren negoziatzea izan zen (soldatetan, kontratazioetan...)

Guk sindikatu bezala, murrizketak inolaz ere ez genituela negoziatuko esan genien eta bilera horretatik altxatu ginen. Hau horrela izanik, bigarren bilera batetara deituak izatean, egoera berdinean aurkitu ginen. Beraz, sindikatuok mahai guztietatik altxatuko ginela erabaki genuen.

Partzuergoak gure soldatetan murrizketak aplikatu zituen (2010eko abenduko aparteko ordainsarian) eta honekin batera guk errekurtsua jarri genuen. Momentu berean, mobilizazioei hasiera eman genien: kontzentrazioak langile eta familiekin, langile asanbladak, lanuzteak...

Mobilizazio guztien leloa "murrizketarik ez" eta "Haur-eskoletako hezkuntza kalitatearen alde" ziren. Mobilizazio hauek oso arrakastatsuak izan zirela esan beharra dago eta bere oihartzuna izan zuela. Aurtengo mobilizazio egutegia abian ipini ondoren, Partzuergoa eta Hezkuntza Saila behartuta izan dira murrizketen diskurtsotik at egiteko.

Horren ondorioz, urriaren 3an eta 4an izandako negoziazio bileretan murrizketak ez genituela onartuko adierazi genuen

sindikatuak eta bertan eskatu genuen errekurtsua behin-betiko deuseztatzea, egoera larrian dauden haur-eskolak banan-banan aztertzeke eta irtenbide bat bilatzeko konpromisoa hartzea, besteak beste. Nahiz eta hasiera batean Partzuergoak ezezkua eman gure eskariei, urriak 4ko bileran adostasun hauetara iritsi ginen:

-2010 eta 2011ko soldata murrizketarik ez aplikatzea.

-Haiek jarritako errekurtsua behin-betirako kentzea.

-Haur-eskolaz haur-eskola sortu diren arazoak ekiditeko batzorde teknikoa sortzea. Bertan, konpontzeko neurriak aplikatuko dira behar diren kasuetan, beti ere, lan hitzarmenean oinarrituta.

-Gure partetik, planifikatutako mobilizazioak momentuz ez gauzatzearen konpromisoa hartu genuen.

Akordio hau LAB eta STEE-EILAS sindikatuok sinatu genuen Partzuergoarekin batera. Hori guztia kontuan izanda, lan hitzarmen berriaren negoziazioaren atarian aurkitzen gara.

Argi dago, ez dugula onartuko orain indarrean dugun lan hitzarmena baino kaskarrago bat. Negoziatioari aukera bat ematen hasi gara eta horretarako urriaren 13an batzorde teknikoa egin zen eta urriaren 27an mahai negoziatzailea.

Urriaren 13ko batzorde teknikoan hainbat haur-eskolen egoera aztertu ondoren, neurri zuzentzaile batzuk aplikatzeko konpromisoa hartu zen. Nahiz eta, haur-eskola batzuen egoera onera egin, oraindik ere hutsuneak badaude. Beraz, lanean jarraituko dugu, horretarako zuen parte hartzea eta zure haur-eskolako egoera guri jakinaraztea ezinbestekoa dugu.

LIZENTZIA ETA BAIMENAK

MOTA	DESKRIBAPENA	ZENBAT EGUN?
GAIXOTASUN EDO ISTRIPUAGATIK (29.artikulua)	Langilea gaixorik dagoenean edo istripu bat izan duenean baja hartzeko eta %100 kobratzeko eskubidea du, betiere medikuaren ziurtagiria aurkeztuz.	Sendatu arte edo medikuan alta eman arte.
AMATASUNA (30.artikulua)	Emakume langileek umea izateagatik baja hartzeko eskubidea dute.	- 18 aste (natural) izango dira. - Erditze multiplea bada 2 aste gehiago. - Umea ospitalizatuta izanez gero, 13 aste gehiago gehienez.
EDOSKITZE ARRUNTA (30.artikulua)	Emakume langileak ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea du bularra edo biberioa emateko.	Haurrak 12 hilabete bete arte .
EDOSKITZE METATUA (30.artikulua)	Emakume langileak ordubeteko etenaldi guztiak metatu eta amatasunarekin batera jarraian hartu ditzake.	Haurrak 12 hilabete bete arteko egun bakoitzeko ordu bat kontutan hartuz eta batuketa eginez.
AITATASUNA (31.artikulua)	- Haurraren jaiotza, adopzio edo harrera kasuetan beste gurasoak eskubidea du egun batzuk hartzeko. - Guraso honek emakumearekin partekatu ahal izango du amatasun baja (emakumeak derrigorrez gutxienez lehen 6 asteak).	- Gizarte segurantzatik 13 egun jarraian (anitza bada 2 egun gehiago). - Partzuergotik 5 egun jarraian edo ez (betiere erditu ondorengo 15 eguneko epean).
NORBERAREN EZKONTZA (33.artikulua)	Langileak ezkontzeagatik lizentzi baimena du. Ezkontza ospatu baino lehen edo ondoren hartu ahal izango dira egun horiek.	20 egun natural (ezkontza eguna barne).
1. ETA 2. MAILAKO SENIDEEN EZKONTZA (33.artikulua)	Ezkontza honako hauena bada: Guraso, Aita-amaginarrebena, Suhi-errainena, Seme-alabena, Ilobena, Aitona-amonena.	Ezkontza eguna eta 150km. baino urrutiago gertatzen bada 2 egun gehiago.
ADOPZIOA (32.artikulua)	30.artikuluaren antzekoa.	30.artikuluaren antzekoa eta nazioartekoa bada bidaiaria egiteko 2 hilabete.
SENIDEEN GAIXOTASUN LARRIA EDO HERIOTZA (34.artikulua)	Langileak honako kasuetan lizentzia har dezake: - Bikote edo seme-alabena - 2.mailako senideen heriotza - 2.mailako gaixotasun larria	- Bikotea edo seme-alaba, 5 lanegun. - 2.mailako senideen heriotza, 3 lanegun. - 2. mailako gaixotasun larria, 2 lanegun. + 2 egun naturalak, 150 km baino gehiago bada. Errepika daiteke 30 egun geroago, terminalak salbu.
NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK (35.artikulua)	Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko eskubidea dugu. Baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.	Behar den denbora.
OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDAKETA (36.artikulua)	Etxe aldaketa. Urte bat pasa behar da berriz lizentzia eskatu ahal izateko.	2 laneko egun jarraian eta horietako batean errolda aldaketa egin behar da. Ziurtagiria eskatu eta aurkeztu behar da.
ADINGABEKOAK, EZGAITUAK EDO SENIDEAK ZAINTEZKO EDOTA	Adingabe bat (12 urte bete arte) edo ezgaitu fisiko, psikiko edo sensoriala (lanik egiten ez duen) edo larriki gaixotuta 2. mailara arteko senidea	Laneko egunetik zortzirena gutxienez edo erdia gehienez murrizteko aukera jakinda ordainsarian ere heineko beherapena izango dela.

LIZENTZIA ETA BAIMENAK

NORBERAREN GAI XOTASUNAGATIK BAIMENA. (38.artikulua)	(beraiekin bizi behar du) zaintzarako.	Gutxienez edozein aldaketa egiteko 15 egun lehenago abisatu behar da.
GAI XOTASUN KRONIKOREN BAT EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEEI LAGUNTZEKO BAIMENA. (39. artikulua)	Semea-alabak, norberaren bikotea (ezkondua bada) edo bigarren mailako senideak zaintzeko baimena.	Gehienez 2 ordu, ordutegi hasieran edo amaieran hartzeko. Urteko kreditua 60 ordukoa izango da gehienez.
AZTERKETAK EGITERA JOATEKO BAIMENA (40.artikulua)	Zentro ofizialetarako eta homologatuetarako langileak baimena du azterketara joateko.	Azterketa eguna eta azterketa 150km baino gehiagora bada egun 1 gehiago.
MEDIKURA JOATEKO BAIMENA (41.artikulua)	Lanaldi barruan hezitzaileak eskubidea du medikura joateko. Behar duen denbora hori ez du errekueratu behar. Lehen mailako senide, senar-emazte edo adin txikikoak laguntzeko baimena ere du, baina hau errekueratu beharra.	Behar duen denbora.
ZIENTZIA, TEKNIKA SINDIKATU... JOATEKO BAIMENA (42.artikulua)	Ikastaroetara joateko, sindikatu izaerako ekitaldietara joateko etab. baimena du langileak.	Behar duen denbora eta ordaindua 5 egun arte.
HAUTAPENEZKO KARGUAREN BETEBEHARRAK (43.artikulua)	Instituzioetako kargu hautetsiak diren langileak baimena dute kargu horiei dagozkien eginkizunak egiteko.	Urteko lanaldiaren %10a har daiteke eta ordaindua izango da. Lanegunaren bostenekoa, herena edo erdikoa behar bada, zati hori ez da ordainduko.
NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA (44.artikulua)	Norberaren eginkizunetarako baimena izango du langileak (hasi edo lanera itzuli denetik urte bat igaro behar da). Gutxieneko baimena 7 lanegunekoa izango da eta 15 egun aurretiaz eskatu beharko da.	Gehienez 3 hilabete , 2 urtero.

KONTAKTUA ETA ARDURADUNAK

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 7
☎ 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org **ARDURADUNA: Sonia**

BIZKAIA: Nicolás Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbo ☎ 944 10 02 98 7
☎ 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org **ARDURADUNA: Egoitz**

GIPUZKOA: Basotxiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 7
☎ 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org **ARDURADUNA: Arantxa**

NAFARROA: Descalzos, 72 behea 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 7
☎ 948 27 00 48 nafarroa@stee-eilas.org

LAN ISTRIPUAK

LAN ISTRIPUAK

Partzuergoak Stee-eilas sindikatuari 2010-2011 ikasturtean Haurreskoletan 58 lan istripu egon zirela jakinarazi zion. Hauetatik 35 baja gabekoak izan ziren eta 23 kasutan mutuak langileei baja ematea erabaki zuen. 10 lan istripu "in itinere" izan ziren (hau da, etxetik lanerako bidean).

Aurtengo datuen arabera, momentuz, haurreskoletan 7 lan istripu gertatu dira. Hauetatik 4 bajadunak (3 in itinere) eta beste 4 baja gabekoak.

Datuak hauek dira, baina gure lan balditzen arabera istripuen kopurua handitu ahal da, bi arrazoiengatik.

Lehenik, **baliabide fisikoak aproposak ez badira**; adibidez, mahairik ez badago hurrei bazkariak emateko edota daudenak zabalegiak, altuegiak edo baxuegiak badira hezitzaileek ezin dute gorputz postura egokirik hartu. Honek gorputzeko atal desberdinetan (bizkarrean, lepoan, belaunetan...) mina sor dezake. Mahaiak bezala beste hainbat altzairu aipa daitezke; aulkiak, sehaskak, aldatokiak...

Bigarrenik, **baliabide pertsonalak eskasak badira** (gaur egun gertatzen den bezala); hezitzaileen lan karga handitu egiten da, denbora falta nabarmentzen da eta urduritasuna ere handitzen da. Beraz, eginbeharrekoetan abiadura azkartzen da hezitzaileen arreta gutxituz.

Bestalde, esan behar dugu, oso garrantzitsua dela mutuara joatea lana egiteagatik edozein ondoez nabaritzen dugunean. Horrela, lanak sortutako gaixotasunak agerian utziko ditugu eta mutuak gure laneko gaixotasunen araudia eguneratu beharko du eta agian beste batzuk txertatu beharko dira.

Gainera, gure gaixotasunak lanaren eraginaz sortzen edo areagotzen badira Gizarte Asegurantzak ez ditu zertan ordaindu. Hau mutuari dagokio, urtero Haurreskolak – Partzuergoak dirutza ordaintzen baitio.

Horregatik guztiagatik Stee-eilas sindikatuak edozein min edo ondoez sentituz gero mutuara jotzea animatzen zaitu.

Istripu bat ematen denean, kaltetua Mutuara joango da osasun laguntzako parte bat eta enpresako zigilua jarrita. Ondoren Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari istripuaren berri eman beharko dio.

Istripua izan duen langileak Mutuatik atera bezain pronto Haurreskolak Partzuergora faxez Osasun Laguntzako Partearen kopia bat (enpresari dagokion alea), Mutuak emandako dokumentazioa, alegia istripua bajaduna edota bajarik gabekoa den, eta Jarraibide Orokorren liburuan barneratuta datorren "Haurreskolako pertsonalaren istripuak jakinarazteko agiria" eredia bidali beharko ditu. Ondoren, aipatutako hiru dokumentu originalak korreo arruntaren bidez bidali beharko dira.

HAUR ETXEAK

HAURRESKOLEN ORDEZ SUBKONTRATUTAKO PISUAK. HAUR-ETXEAK

Denok jakingo duzueenez Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak, haur-etxea egitasmoa aurkeztu zuen pasa den uztailean. Jada, honen lehenengo urratsak Bizkaian eman dira, baina beste bi herrialdetan, ere martxan jartzeko asmoa dute, hurrengo urteetan.

Argi dago proiektu honek gure haur-eskoletako izaera, formazioa eta lan egiteko era, hezkuntzaren garrantzia, eskubideak eta laneko baldintzak kolokan jartzen dituela. Haur-etxea zerbitzu honek dirua aurrezteko, zerbitzuaren pribatizazioa eta 0-3 urteko tartea asistentziala hutsa bilakatzea lortuko du.

Honez gain, XXI. Mendeko gizarteak umeen zaintzari eta hezkuntzari buruz bereganatuta dituen rolak oraindik ere emakumearengan jausten badira, nola hautsiko ditugu Lan Sailak egindako proposamen honekin? Gizonak ausartuko ote dira egitasmo honetan parte hartzera? Momentuz, formazioa jasan duten guztiak emakumezkoak izan dira.

Haur etxe hauek, haurtzaroko zaintzari dagokion kalitatean hutsuneak izango ez dituztela, nola ziurtatuko da? Hau da, umeen ardura hartzen duten profesionalen kualifikazioa, instalazioen baldintzak eta nola ez, hezitzaile hauen lan baldintzak, onargarriak izango ote dira? Nor arduratuko da honen jarraipena egiteaz? Proposamena bota dutenek, prozesuaren ebaluazioa ere egingo dute?

Hau ez da familia eta lan munduaren kontziliazioan aurre-pausu bat, baizik eta Haur Eskolen ezarpenean atzera-pausua. Beraz, oso astiro zihoan 0-2 urtekoentzako plazen sorrera, neurri honekin oztopatzen delakoan gaude.

Falta zaiguna!!!

Iragarri duten zerbitzu honek gizon eta emakumeen artean zaintza lanak era orekatuan banatzeko bidea zabaldu beharrean eta zerbitzu publikoan bultzatu beharrean, arlo pribatura birbidaltzen du umeen arreta, umeen arduraren amaren papera goraiatuz.

Ekimen honek uko egiten dio ere 0-6 urteko etapari eman nahi diogun trataera global eta koherentea, legeetatik ere bultzatu omen zena. Aipatzen diren Europako esperientziak errealak dira, orain dela 35 urte sortuak, gaur egun inork ez ditu eredugarritzat aurkezten. **Aurrera joan beharrean atzerantz goaz ala?**

Ezagutu berri dugun iniziatiba honek irakurketa bakarra du: zerbitzu publikoak murriztuz dirua aurreztu nahi da, ideologia atzerakoiena erabiliz. Halako neurriak hartu beharrean beste politikak bultzatu behar dira: gaurko Haur-eskolak Partzuergoa hedatu eta indartu, Hezkuntza Sailak berak, sare hau bere gain hartu behar duela ahaztu gabe.

**Noiz izango da egun hori?
Nahikoa da, haur-eskoletako
langileen aitortza orain!!!**

Informazio gehiago jakin bezain pronto **STEE-EILAS** sindikatuak bidaliko dizue.

STEE-EILAS-ek argi du egitasmo hau gelditu beharko dela aipatutako arrazoiak direla eta.

Guztion artean lortuko dugu!!!

GIZARTE MUGIMENDUAK

GIZARTE ZERBITZU DUINAK: MURRIZKETA GEHIAGORIK EZ!!

Irailean, Gasteizko Legebiltzarrean, alderdi politikoak bildu ziren hurrengo plenoan bozkatuko den Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen proiektuaren diktamena adosteko.

PSE-k eta PP-k adostutako ebazpenak Diru-sarrera Bermatzeko Errentaren eskubidea izateko irizpideak zorroztu ditu, Erkidegoan **errolatuta egoteko derrigorreko denbora urte batetik hiru urteetara luzatuz** (edo 5 lan urte diruz ordainduta, bitzita laboralaren bitartez kreditatuta). Baldintza hau era irregularrean daudenentzat ezinezkoa da eta gazteentzat oso zaila.



Era berean, **lanpostu prekarioak onartzeko betebeharra ezartzen da**: lan eskaintza bat hartzeari uko egiten duten pertsonen prestazioa kendu egingo zaie (orain arte lan eskaintza ez-egokia izatekotan uko egiteko hiru aukera zeuden) eta gizarterako lanak egiteko derrigorotasuna ezartzen da (zerbitzu publikoetan lanpostuak desagertzeko arriskua).

Gizarte gaietarako eta Enplegu Sailaren sailburua den Gemma Zabaletak bultzaturiko azken murrizketa soziala besterik ez da. Legealdia honetan zehar, Eusko Jaurlaritza gizarte eskubide eta diru-laguntzen murrizketetan etengabeko urratsak eman ditu, Gizarte Larrialdietarako Laguntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta lortzeko eskakizunak gogortuz

2009. urtean legea indarrean jarri zenetik, eta bereziki oraingo gobernuak

garatzen duen araudia onartu zuenetik, gizarte eskubideak murrizten dituzten neurriak hartu dira etengabe eta, ondorioz, babes soziala gutxitu eta laguntzak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsonen defentsa-gabezia areagotu egin dira.

Lehenbiziz, prestaziorik gabe utzi zuten ondasun higiezin bat zeukaten pertsonak, honela Euskadira lan egitera etorri diren langileak haien herrietan etxebizitza edo lur zati bat izanda laguntzarik gabe gelditu dira: jubilatutak, helduak seme-alabak etxean utzita bertara lanera etorriak diru apur bat eramateko asmoz, banatu diren pertsonak eta ondasun komuna dutenak, etxebizitza baten zatia herentzi giza jaso dutenak...

Oraingo arautegiarekin, etxebizitza bakoitzeko bi laguntzen muga sartu zuen. Bizkaiko Aldundiak ere egoera larriagotu egin du muga berbera ezarriz. Neurri honek ekarri duen ondorioa errolatzeko eskubidea duen gela baten alokairua garestitzea izan da, eta etxebizitza konpartitzeko beharra dituzten pertsonak eskubiderik gabe uztea...

Egoera larriagotzen da eskaerei erantzuteko atzerapenekin, errekurtsioak bideratzeko epe luzeegiekin, kautelazko etenaldietan gehiegizko erabilerarekin, akatsekin....

Begi bistakoa da **Oinarrizko Errenta lortzeko baldintzak gogortzeak milaka pertsona txirotasun egoeran uztea baino ez duela ekarriko** eta, horren ondorioz, gizarte bazterkeria, lan merkatuaren prekarizazioa eta gizarte politiken deuseztapena areagotu egingo dira, egungo gizartea babesteko sistema desagitera bultzatzen delarik.

Hau guztia salatzeko STEE-EILAS sindikatuak, beste jendarte eragileekin batera, neurri hauek baztertzea exijitzen du eta krisialditik ateratzeko irteera gizarte zerbitzu eta politikak indartuz eman behar dela aldarrikatzen jarraituko du.

Hezkuntzari eta hezkuntzako langileoi erasorik ez! Kalitateko hezkuntza eta zerbitzu publikoen alde!

Hego Euskal Herrian hezkuntzak gobernuen aldetik jasotzen duen tratua eta ondorioz bizi duen egoera ez da sinestarazi nahi digutena. Kalitateari eusten bazaio bertan diharduten langileen eta hezkuntzako beste eragileen inplikazio, lana eta esfortzuagatik da, baina ez gure administrazioek ematen dioten garrantziagatik edota bertara bideratzen dituzten baliabideengatik.

Egoera honi, krisia aitzakia, 2010-11 eta 2011-12 ikasturteetan egin diren eta sakontzen darraiten murrizketak gehitu dizkiete gobernuak eta hezkuntzako patronal ezberdinek, bakoitzari dagokion erantzukizunaren mailan. Hezkuntzaren sektore eta esparru guztietan inposatu dizkiguten murrizketak eta plantillei, soldatei, ordezkapenei, lan-kargei, langileen prestakuntzari, hezkuntza proiektuei, etab. eragiten dietenak. Jakina da honelako erasoek lan-baldintzen okertze nabarmena dakartela beraiekin eta, honi zuzenean lotuta, hezkuntza kalitatearen kaltetze nabarmena.

Azken bi ikasturte hauetan, hezkuntzako sektore ezberdinetako langileok (haurreskoletakoek, irakaskuntza publikoko kolektibo ezberdinek, gizarte ekimeneko ikastetxeetakoek, ikastoletakoek, unibertsitatekoek) ekimen eta mobilizazio ezberdinak egin ditugu egoera salatuz, murrizketak atzera bota ditzaten exijituz eta politikak aldatzeko eskatuz; eta bide horretan jarraituko dugu sektore eta esparru hauetan guztietan.

Sindikatuok, Hego Euskal Herrian hezkuntza bere osotasunean bizi duen egoera eta gainezarritako murrizketak salatu nahi ditugu, gobernuari eta patronalei murrizketak atzera botatzea exijitzen diegu eta hezkuntzari duen garrantzia ematea eta beharrezkoa duen inbertsioa egitea eskatzen.

Horretarako, hezkuntzako langile guztiei eta jendarte osoari dei egiten diogu beraien ikastetxeetan eta inguruan egoera sala dezatela eta gurasoei eta gizarte osoari jakin arazi diezaiotela politika hauen ondorioak.

Gure herriak, gure haur eta gazteek, gurasoek eta jendarteak bere osotasunean behar du kalitatezko hezkuntza eta horren defentsan eta aldarrikapenean jarraituko dugu lortzen dugun bitartean.

Hau guztiagatik, Urriak 27an EAE-ko 3 lurraldeetako hiriburuetan eta Nafarroan manifestazioak burutu genituen eta aurrerantzean ere, gauza hobetu ezean, mobilizazio desberdinak burutzen jarraituko dugu.



Josep M. Cervelló, Kataluniako USTEC-STE sindikatukidea, katalanaren eztabaidaz:


Katalanak kohesio soziala eta elkarbizitza bultzatu behar ditu. Ikasle guztiek aukera berberak izan behar dituzte, hizkuntzagatik inor bereizi gabe. 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980koaren hasieran eztabaida handia izan zen ea ikasleen ama hizkuntza bermatu behar genuen ala ohiko hizkuntzatat katalana hartu behar zen. Gogoan izan 1960-70eko hamarkadetan milioi bat andaluziar eta extremaduratar etorri zirela gurera. Kontua ez zen hizkuntza salbatzea, hori ere bai, baina batik bat hizkuntza etorri berriekin elkarbanatzea zen. Ikastetxeetan ez ziren bi lerro sortu, Herrialde Valentziarrean bezala. Eskola segregatua egin izan bazen batasun soziala apurtzeko arriskua zegoen, lurralde berean bi herri egongo ziratekeen.

Argia aldizkaria, 2011-



Zaldireroa, Berria egunkaria, 2011-09-24

Manel Fontdevilla, PUBLICO, 2011-09-11



DAVID ATCHOARENA, Unesco Hezkuntza Estrategia zuzendaria

Belaunaldi galduak sortzeko arriskuaz ari zarete. Zer esan nahi duzue? Krisiak eragin handia izango du herrialde batzuetan, eta arrisku handia dago gaur egun eskolatuak dauden haurrak bidean galtzeko, eta heziketa kalitatea jaisteko. Krisia langabezia izugarria eragiten ari da, eta, lanik ez badago, jendeak ez du haurrak eskolara bidaltzeko aukerarik; zer esanik ez helduak alfabetatzeko. Umeetan arrisku handia dago. Herrialde askotan sumatzen hasiak dira haur asko eskola utzi eta eskean hasi direla.

Gainbehera horretan belaunaldi galduenak neskak izaten dira. Iraganean ikusi dugu herritar ahulenak neskak direla. Maiz ikusten dugu hainbat kulturatan emakumeen heziketa gutxiesten dela, eta egoera gogorretan okertu. Etxera sartzen dituzte. Baina hor ikusten da gizarte askotan emakumeen hezkuntzak zenbat balio duen. Berdin gertatzen da desagertzeaz dauden hizkuntzetan bizi

direnekin, bazterrean bizi diren herritarrekin, azken batean.

Nahi eta ezina ere bada beste arazo bat. Irakasle beharra, barne egitura... Hezkuntzarako eskaria izugarria da hainbat lekutan, baina ez dago eskaintzarako bitartekorik. Eskari handia dago, baina batzuetan hezkuntza hedapena eta merkatua ez datoz bat. Gutxiengoei euren hizkuntzetan erakusteko modurik ez dago, adibidez. Irakasleak hezi behar dira aurrena, eta zenbakietan aurrerapausoak azaldu beharraren eraginez gutxiengo kulturak kaltetzen dira.

A. MUJICA. Berria egunkaria, 2011-09-24